

# ZER DEN EUSKAL ERREPRESALIATUEN SENIDE IZATEA

**E**z gara gu geu izan preso baten senitarteko izatea aukeratu dugunak, errealitatearen egoera latzak eraman gaitu presoan senide izatera, guk errealitate hori onartuz egin duguna gure esku zegoen neurrian laguntzea eta momenturik latzenetan beraiengandik hurbil egotea izan da.

Frantziak eta Espainiako geografia osoan, irlak barne, eman den presoan barreiaketaren ondorioz kartzela askotan geu bakarrik gara beraiekin komunika gaitzekoen bakarrak.

Oso garbi utzi nahi dugu bai legedi espainolean eta baita internazionalen ere zera agertzen dela: "PRESOAK BERE BIZILEKUTIK GERTUEN DAGOEN KARTZELAN EGON BEHAR DU...", gure senidekin, berriz, guztiz kontrakoa gertatzen da. Sakabanaketaren ondorioak ez ditu presoak bakarrik ikuitzen, senitartekoak eta lagunak ere jotzen ditu:

- ▮ Kilometro askotako bidaiak egitera behartua gaude, errepideek berekin duten arriskuarekin (zenbait istripu graba jasan ditugu, eta gutariko bi hilik gertatu dira).
- ▮ Bidaietan diru asko utzi behar izaten dugu eta oso astunak gertatzen dira, beriziki umetxo eta guraso zaharrentzat.
- ▮ Presio neurri gisa, grabaketak erabiltzen dituzte, honela gure intimitatea bortxatuz (egoera familiarra, eta abar).
- ▮ Giza eskubideen aurkako tratua jasotzen dugu (biluztarazten gaituzte).
- ▮ Kontrol polizialak, mehatxuak eta erasoak ere jasaten ditugu (Alcala).

Guztiok bakardadean eta gure etxeetatik kilometro askotara jasan behar izan ditugu; guzti hori gutxi balitz sarritan lagunak ezin izan dituzte presoak bisitatu.

## Gurekiko tratu hau zergatik?

Badakitelako nahiz eta oztopo ugari jarri ez ditugula gure anai-arreba eta seme-alabak abandonaturik utziko, eta gu gara lekuko beraiek dispertsio politika deituriko horretaz gure senitartekoak suntsiketara eraman nahi dituztela ikusiz.

Oso garbi dugu egoera hau desagertuko litzaketela baldin eta estatu espainolak bere legalitatea beteko balu, nola? Presoak beren etxeetatik gertu edukiz.

Era berean, ez genituzke ahaztu nahi gure senide diren JAIONE eta MITXEL egun exilioan eta deportazioan dagoen JOXE LORENTXO



*Lezoko preso, errfuxiatu  
eta deportatuen SENIDEAK*